

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko Otsailaren 5a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Sakana. Santa Ageda eguna ospatuko da hainbat herritan.

Roldan Jimeno • »Jendeak ez du ezagutzen historia».

Baztango auzo ahaztuen testigantza



• MIKEL SAIZ

Baztango bailaran badira bi auzo: Aritzakun eta Urritzate. Aritzakun Erratzu eta Arizkun herrietako mendietan kokatzen da, eta Urritzate Erratzukoetan. Aritzakunen dago Nafarroa Behereko mugatik pauso batera dagoen Sumusua benta. Han bizi da Mailux Etxebes erratzuarra, joandako urteak gogoratuz: gaueko lana, gerraondoko urte gogorrak... Garai batean 230 biztanle inguru eta 26 baserri zituen auzoak, eta beste 150 lagun eta 22 baserri Urritzatek. Orain kasik gehienak hustuak daude, eta asko erortzear.

Sakana •

Santa Ageda eguna ospatuko da hainbat herritan

Dena den, Altsasuko kintoen santa eskea izaten da eskualdean ezagunena

Gaurtik aurrera Santa Ageda eguna ospatuko da eskualdeko hainbat herritan: Urdiain, Olazti, Ziordia eta beste. Dudarik gabe, Altsasun ospatzen den Santa Ageda eguna izaten da eskualdean ezagunena eta ikuskizun handiena sortzen duena.



Aurtengo kintoak ere eskean ibiliko dira Altsasuko kaleetan barna. • OSKAR MONTERO

A LTSASUKO KINTOAK HERRI-ko karriketara itzuliko dira gaur diru eske, bost egunetan zehar egingo dute jai egunak ordaindu ahal izateko. Iñaki Paniagua Rodriguez eta Javier Malo Azpirozi egokitu zaie 1999ko kintako lehen eta bigarren errege izatea, urtarilaren 6an egin zen zozketan. Aurtengo kintoak 60tik gora izanen badira ere, aurreko urteotan baino kinto gutxiago dira. Neska-mutilen

arteko bazkarien aferari dagokionez, aurtengo kintak hiru bazkari egingen ditu elkarrekin. Hau da, iaz baino bazkari bat gehiago izanen dute aurtengo neskek. Denboraren poderioz, badirudi, beraz, nesken eta mutilen arteko desoreka desagertuz doala.

Santa Agedako festa, duela zenbait urte arte, mutilek soi-

lik egiten zuten. Diru eske ibiltzen ziren egunean, neskek opilak banatzen zituzten, eta gero kafeetara azaltzen ziren, Gizonezkoek egiten zuten gainerako guztia: alegia, zortzikoa dantzatu, bost egunetan jatetxe batean gosalduta eta bazkaldu, eta txarangarekin kalez kale aritu. Duela hamar bat urte,

ordea, neskak festan sartzeko ahaleginetan hasi ziren, eta baita lortu ere.

Sakanan, beraz, asteburuan hainbat herritan ospatuko den Santa Ageda eguneko parte hartzeko aukera izanen dute bertara joaten direnek. Egun hauetako protagonistak kintoak badira ere, herritar guztiak murgil-

tzen dira jai giroan eta denentzat bada lekua.

Inauteriak Etxarri-Aranatzen

Bestalde, inauteriak gainean ditugu eta Sakanako herriek eguna iristerako dena prestatzen ari dira. Dena den, Etxarri-Aranatzen dagoeneko inauterietan murgildurik daudela esan daiteke. Hain zuzen ere, ohitura zaharra berritzeko asmoz, garai batean egiten zen bezala hiru aste lehenago hasi dituzte inauteriak. Aurreko ostegunean Gizekunde eguna ospatu zuten. Bertan, txatxarren kalejira egin zuten txistularien doinuaren laguntzaz, eta, ohiturari jarraituz, herritarrei janaria eskatu zieten. Ondoren, bildutakoarekin afaldu egin zuten.

Atzo, berriz, Andrekunde eguna ospatu zen, eta, txatxarren kalejira egin ondoren, emakumeendako afaria izan zen. Gazte Asanbladak, Emakumeen taldeak eta aurtengo kintoek antolatutako inauterietan inguruan zeuden ohitura zaharrak pixkanaka berreskuratzea dute helburu.

→ Amaia Mundiñano

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



E «Horrek du eskola!», entzuten nien txikitik nagusiei. Gehienetan ez ziren nitaz ari, ni oona bainintzen (tontoa, arreberen uestez). Bihuriei botatzen zieten, trikimaluak eta okerrak ongi pentsatzeko ahalmena eta patxada zeukatenei. Elkarren inbidian egoten ginen, zintzoak eta ez hain zintzoak. Zirkuko ispilu deformatzaile bihurtzen ginen elkarrentzat. Enbataren erdian geunden, inoiz iristen ez zen geroaren zain.

Xabier Olarraren *Eskolan ikasten ez direnak* bikainean ikasi nuen moduan ikasgelatik kanpo-koak paper zuri bat ekartzen digu, amildegi bat, eramaten zaila den galdera ikur izugarria.

Jende heldua ere ez zen gu baino helduagoa, gu bezain galduak zeudelako akuilatzen gintuzten: «Zer izan nahi duk haundia egiten haizenean?».

Trivial

Ez genekien, eta asmatu egin behar. Horregatik atera da hainbeste futbolzale. Egitasmoa nola edo hala taxutua zutenak nagusiak ziren, eta arriskuren bat ikustean asaldata egiten ziren: «hori al da eskolan irakasten dizuetena?».

Ez, ez zen hori. Gaiztakeria eta biraoa bizirau-pen kontua ziren, eta horietan hartu zuen oinarri antiakademikoen eskolak. «Bizitzaren eskola» deitzen zioten oinazea eta herra ezin gorderik. Horietako batzuek ikasketa paraleloak egin zituzten eta listoen eskola sortu zuten. Listoa oso listoa da, batez ere arauak ezartzeko moduan dagoen bitartean.

Gaurko egunean bizi dute azken hauek beren sasoirik hoberena. Behetik etorri eta han goian jarri dira, eta kalbinisten izpiritua eta irribarrea erakusten digute. «Zuek ere saiatzen bazarete lortu ahal duzue...», esaten digute alaia izan nahi duen

maneran. Ezin dena izan, zabarrak dira eta zaila zaie nekatua dagoena komentatzea.

Eta besteok, ikasi al genuen zerbait? Zuek ez dakit, baina ni, balantzea eginik, Trivial jokoa zaildu nintzela esanen nuke; afalondoetako saioretan, behintzat, ez naiz barregarri geratzen, eta pozaldi laburra ematen dizkit tarteka.

Ordea, eskolak ez zidan irakatsi zer egin behar den planetaren jira etengabeak eragiten duen zorabioa gainditzeko. Hau guztia asmatu zuenak instrukzio liburua harrika bota zuela dirudi eta, guk, gainera, oso laguntzaile txarrak izan ditugu.

Ergel fama zuen ikaskide ohi batek zera erantzun zion behin maisuari: «Ez dakidana galdetzen didazu beti».

Bai, nik ere matxinsalto ttipi bat izan nahi nuke, kung-fu borrokan trebea, baina ez dut maisurik bilatzen. Denek akademia bat ireki dute.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Gauetz eta ilunpean

Gau amaiezinak dituzten eta esplotatzeko zailak diren lurraldeak argitzeko asmoz, eskuargi erraldoi bat asmatu dute errusiarrek. MIR espaziozuntzikoak hogeita bost metroko diametroa duen ispilu erraldoi bat montatzen ari dira. Ilargi betearen argi bera eman- go omen du. Eskuargi espazia- la. Pitufok ekarri dizkirate gogora. Haiek ere euria pitufa- tzeako makina bat pitufatu zuten.

Probetan jarri eta ispilu honek lur eremu zabalak argi- tuko ditu. Baso urdin eta isilak. Lautada grisak. Hizotz geruzen azpian galdutako zuhaitzen adaxkak. Harrien ondora bildu- tako elur multzoak. Bakarda- dea ere pitufatuko du eta giza- kien ausentzia. Gaueko animalia harrituen mugimen- duak. Izotzetan iltzaturiko meteorito beltz eta arrotzak. Ihesean poloetan babes baka- rra aurkitu duten naturaren jainko eta jainkosak ere argitu- ko ditu. Jada ez dute beste ihes tokirik izanen. Naturaren jainko eta jainkosa hauek gauetz eta ilunpean eragiten zituzten lan eta misterioak...akabo.

Martxan jarri eta ispiluak eskabadoreen bidea argituko du. Gasoil kontainerak. Gas tutu ezin handiagoak. Komun portatil eta desinfektatuak. Sili- zioaren garraiorako kamioien burdinak. Langile batek lurrera botatako Pravdak. Aluminioz- ko lurraren sakonak ere pitufa- tuko ditu eta landareen protei- nak eta amebak eta hodeietan bildutako kristalak eta hosto bakoitzaren zelulak eta horrela infinitoa osatu arte.

Jainko eta jainkosak bande- ra txuria atera beharko dute. Ispiluaren argi horren pean baldintzarik gabeko irabazleen pakea sinatu ondotik ezkutatu, diren zuloetatik atera eta katea- tuak plaza gorrira eramango dituzte desfile batean, gerran irabazitako ondare bat bezala, parte har dezaten. Urrezko txe- korraren aldarearen aurrean belaunikaturik botako dituzte, txof!, eta gizakiok naturaren mendekuaren zain geldituko gara; mendeku honek zein itxura hartuko duen ere jakin gabe.

Arribe


Santa Agedarako erromeria gaur

BADA ETXEKALDEKO BIDEAN, ATALLUKO HILERRI- tik oso gertu, baseliza txiki eta zahar bat. Aldareaz eta ezkila zahar batez aparte, ezer gutxi du XVII. mendearen hasieran sortu- takoa omen den elizatxo horrek, baina, halere, arribetarrek oso maitea dute. Duela hamar urte arte, ateak itxirik eduki ditu Santa Agedaren omenez eraikitako baseli- zak.

Kanpoaldea nahiko egoera kaskarrean zegoen, eta barrualdean, berriz, hauts arte- an, altxor bat zuen: Santa Agedaren XVII. mendeko irudia. Ordu arte inork ez zion arreta handirik eskaini Ama Birjinari, eta bertan zegoela gutxi batzuek baino ez ze- kiten. Baina garai hartan Arribeko apaiza zenak, Plazido Erdozainek, Nafarroa- ko Artzapezpikutzara eraman zuen, Ama Birjinaren balioa norainokoa zen erabaki- tzeke. Orduan izan zuten ezustekoa; ingu- ruan zeuden Ama Birjinen artean, balio artistikorik handienetakoa omen zen bere bular ebakia eskuan zuen martiri ha- ren irudia. Horregatik, orduz geroztik, Arri- beko San Migel goiaingeruaren elizan gor- detzen dute, babesean, Ama Birjinaren estatua. Baina urtean behin babes horreta- tik atera ohi dute. Duela hamar urteko ohi- tura berreskuratuari esker, gaur, 12:00eta- rako, bere elizaxoraino eramango dute, bizkar gainean, Santa Ageda. Bertan meza entzun eta gero, herriko elkartera jaitsiko dira arribetarrek, hamaiketako egiteko. Atzo gauetan Santa Ageda eskearekin hasi- tako festak gauean izango du jarraipena. Elkarrean bertan, herri afaria izango da, 22:00etan. Horren ostean, trikiti doinuen arrimoan gaupasa egiteko aukera izango da.

→ Urko Aristi

● MIKEL UHARTE



Iruñean ere txotx

Sagardoa gustuko dutenek Iruñeko Arrosadia auzoan ere badute txotx egiteko aukera. Klean Gora sagardotegiak joan den astean ireki zituen berriro upelak aur- tengo sagardo berria dastatzeko. Joan den urteko ohiturari jarraituz, kirolariak omendu zituen. Iaz pilotariak izan ziren, eta aurten aizkolariak hartu zuten lekukoa. Haien artean, aipamen berezia izan zuen Patxi Astibia aizkolari leitzarrak. Astibia 60ko eta 70ko hamarkadako aizkolari onenetakoa izan zen, eta hainbat plaza bete zituen. Mendian izandako istripu batek eragindako lesioak baztertu zuen plazetatik denbora baino lehen. Egun, afizio du garai batean ofizio izan zuena. Klean Gora- koek omenaldi beroa eta xumea eskaini zioten, giro ezin hobean eta Jarauta 64 txar- rrangaren doinuen arrimoan.

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Arkitektura bioklimatikoaz

TTIPI-TTAPA astekariko azken zen- bakiak etxe bioklimatikoaren gaia jorratu du astero erreportaiari eskainitako tartean: «Etxea eta ingurunea ahalik eta hobekien ezkontzea da arkitektura bioklimati- koaren xedea. Gainera, haizea edo eguzkia bezalako errekurtsu natura- lek energia indarra sortzen dutenez, hoiek probexten dira etxebizitza bio- klimatikoetan. Gure eskualdean, horren modernoa uduri duen hitz honen adibide garbiena betiko base- rriak dira, dudarik gabe».

Ttipi-ttapako artikuluan Asier Gogorza kazetariak azaltzen duenez,

arkitektura bioklimatikoaren defini- zioak betiko baserriak ekartzen ditu gogora, arkitektura bioklimatikoak eta tradizionalak hainbat ezaugarri komun dituztelako. «Betiko base- rriak lauki itxura du eta hegoaldera begira izaten ditu leihoak. Harrizko pareta lodiek, berriz, udako beroa gorde eta neguan etxea epelago kontzeko balio dute, inertzia termi- ko handia duen materiala baita harria».

«Nafarroako Gobernuak etxebizi- tza bioklimatikoaren printzipioak jendearen artean zabaltzeko asmoa agertu du berriki, teknikoaren artean

batez ere. Hauek baitira, azken finean, etxea nolakoa izanen den diseinatzeko dutenak. Baina kanpai- na hau sobera zintzoa ez ote den pentsatzeko arrazoiak daude. Izan ere, jende aunitzek Zolinar egiten ari diren Hiri Bioklimatikoak justifi- katzeko egiten duela uste du. Zoli- nan gatz mineralak ateratzeko mea- tzeak zeuden lehen, Potasas de Navarra enpresak gestionaturik. Enpresa hori desagertu zenean Nafarroako Gobernuak erosi zuen bailara guzira, eta Hiri Bioklimatiko- aren proiektua lehiaketa publikora atera du».

Mailux Etxebes

Sumusua bentako maizterra

«Hemezortzi urte nituelarik norbaitek errarizan balit akabatuko zela ezetz erranen nion, baina akabatu da»

Baztango bailaran badira bi auzo: Aritzakun eta Urritzate. Aritzakun Erratzu eta Arizkun herrietako mendietan kokatzen da, eta Urritzate Erratzukoetan. Aritzakunen dago Nafarroa Behereko mugatik pauso batera dagoen Sumusua benta. Han bizi da Mailux Etxebes erratzuarra, joandako urteak gogoratuz: gaueko lana, gerraondoko urte gogorak... Garai batean 230 biztanle inguru eta 26 baserri zituen auzoak, eta beste 150 lagun eta 22 baserri Urritzatek. Eskola ere bazuten, 20 haurrekin. Orain sei bakarrik daude beteak eta bakarra Urritzaten, eta bi auzoetan haur bakarra. Besteak sasiak eta larrak janak, asko eroriak, garai hobe baten lekuko. Jabeek ez ezik, bailarako udalak ere ahaztuxear.



Behoko suaren epela dute Sumusua baserrian berogailu bakarra.
• MIKEL SAIZ

DANTXARINEAKO ERREPIDEK OTSONDOKO portua pasata kilometro batzuetara eskuin harturik Gorramendirako bidean zozazela ezkerretatik harturik lekutzen da Sumusua benta. Mendi kaskora igo gabe, oso behera bide franko egin behar du bidaiariak ondoan dituen baserrien artean berantena baita. Iparla eta Irubelakaskoa mendien artean Elizondotik 30 kilometrotara dago. Zerua urdin badago ere, lau gradu zero azpitik daude Sumusuako atarian, eta bideetako ur negarrak koiletuta Mailux Etxebes azaldu denean. Etxeko sukaldeko sutondoan eserrarazi gaitu, eta solasean hasi da.

■ Noiztik bizi zara hemen?

1955etik hunat bizi naiz hemen. Hunat etorri ginen ezkondu eta lau urteren buruan. Lehendik ezkondu batean goraxeago egoten ginen Urritzaten. Nagusiak saltzera ateratzen zuten, eta ez baikenaguenetik, etorri ginen hunat. Senarra, Bernardo Karrika, hemen jaioa zen, baina familia guztia Bidarraikoa zen, eta joan ziren harat. Han soldadu zela gerla tokatu zitzaion. Gerla denboran alemanak hartu zuten eta prisionero bortsu urte egon zen Alemanian. 55 urtetan bihotzeko atake batekin hil zen.

■ Senarrak aipatzen zuen gerra?

Bai, asko. Bortsu urtetan gosea, hotza eta miseria handia ikusi zuten. Gauz kuarteleira biltzen zituzten, baina biharamunean lainerat joaten ziren nekazari etxetara. Amerikanoak sartu zirelarik utzi zuten, bortsu urteren buruan.

■ Gerra denboran asko sofritu zenuten?

Ez, ez baikenen hemen. Gu Urritzaten ginen orduan. Eskolan nintzen Erratzun. Ger-

la hasi zelarik eskolara joan nintzen bederatzi urtetan. Izeba batekin egoten nintzen, hura hil eta berriro mendiat etorri nintzen. Goserik ez genuen ikusi, baina miseria asko. Ez zen sosik eta familia handiak. Bortsu haur ginen. Ni bakarrik ibili nintzen eskolan izebarekin. Hamahiru urte nituelarik hil zen eta harekin ikasi nuen botikan. Bazuten barra eta ostatua. Hura maite izan nuen eta hunat etorri eta berriaz hasi ginen. Azienta puxka bat ere bagenuen.

■ Hau benta izana da.

Bai. Orain ere bada zerbait baina gauza gutxi. 1955etik hasi ginen. Denbora batean negozio ona izan da, baina BEZa hasi zenean 1985tik goiti, hasi zen ttipitzen. Ordura arte dena kontrabandea egiten baitzen. Jendea bada behin ere baino gehiago, mendia bete dago jendeaz. Jendeak ez du gastatzen. Denak ekartzen dituzte bizkarreko motxila bete, jateko, edateko ura... Ez da bizirik orain. Azienta merke eta bizirik ez da. Ez da kontrabandorik, ez da deus.

■ Gaueko lana aipatu duzu. Asko ikusi izanen duzu...

Bai. Lehenago harekin bizi zen jendea. Beti gauz izaten zen lana. Asko jende bazen eta denak pobreak. Ogia ere Frantziatik ekarri behar zen Espainian razionamendua egiten zutelako. Hamaika-hamabi urte nituelarik hasi zen razionamendua Espainian eta iraun zuen hamahiru urte. Hogeita bortsu urte nituen eta ez zen jateko gehiago. Bakoi-tzak bere artoa, gaztaina eta ilarra. Auniz jende, arropak erosteko sosik ez, zangoetan ibiltzeko oinetakorik ez, eskalopoinak genituen oinean, aitzak egiten zituen.

■ Zer saltzen zen?

Denetarik saltzen nuen. Saldu egiten zen aise, kostatzen zen ekartzea. Janaria, likorea anitz saltzen zen Frantziara garesti baitzegoen eta etortzen ziren frantsesak. Orain mendira bezala orduan etortzen zen erostera. Jendeak kontrabandean asko egiten zuen. Aita zena kontrabandista zen. Gerra ondoan pasatzen zen mandoz, zaldiz alko-hola, aratze zuriak, esnetarako behiak, ezpainak pintatzeko barrak, mantelak, galterdiak, eskumuturreko erlojua, sakelak edozein gauza pasatzen ginen, guardia zibilek ez gintuzten miazten eta segi! Bestalde, astean egiten genituen 120 kilometro, joan eta etorri Erratzura astoarekin. Botika saltzen ginen, baina ekartzea kostatzen, ez baitzen deus pasatzen.

«Bainada gehiago da jenderik da auzorik ere ikusi behar lagunduzi zen jendea orain mak erostea du balio, agu bazterta ama-sak aritzera»



Sumusua benta goi- eskuinean lurren etan.
• MIKEL SAIZ

■ Kontrabando garaian Guardia Zibilarekin makina bat ikusiak izanen zarete.

Bai. Guardia zibilak atzetik eta asko jende eskapatzen. Gure etxearen ondoan bazuten txabola txiki bat, eta Aritzakunen kuartela. Kuartelek hiru egunetik hunat errelebatzen ziren, eta hemen izan zuten zerbitzua. Kontrabandistek musean jartzen zituzten eta euskaldunak tartean pasatzen kontrabandea. Gero afaltzera eraman eta ez utzi pagatzen, eta bitartean besteak pasatzen. Baina gaueko lana itzaltzen joan zen eta mugak desagertzearekin batera akabo. Mailuxek 71 urte ditu, eta 47 urteko semearekin bizi da, alaba Urdazubira esposatu zitzaionetik. Ez elektrizitatek ez telefonorik ez duen etxean, hozkailuak eta argia egiteko eskuargiek Elizondoren erosten duen gasez funtzionatzen dute. Autorik gabe eta pista malkartsu eta zail bat iragan beharrik nahiko isolatuak utzi ditu.

■ Garai gogorak izan ziren, baina auzoak bizi handia zuen. Faltan izango dituzu garai haiek?

Bai. Pena hartzen dut eta falta ezagutzen dut izugarri. Lehenago jendea etorri eta mu-

sean jarri eta zer goxotasuna pasatzen zen. Nik xingarra eta arrautza prestatu eta haiek ederki jan eta sos batzuk irabazten nituen. Baina ez da gehiago. Ez da jenderik, ez da auzorik. Laneko ere bat bestearekin lagunduz bizi zen jendea, eta orain ama-semeak aritzen gara.

■ Orain ere baduzue azienta?

Ez ditugu asko: behiak, txerriak eta oiloak. Semeak hemengo laborantza puxka segitzen du. Elkarrekin bizi gara. Urte batzuk horrelakoxe egoteko esperantzarekin. Osasunak ematen badu.

■ Argi eta telefonorik gabe nola bizi zarete?

Maizterrak gara eta nagusiak ez zuen paratu nahi izan, eta gelditu ginen gabe. Gu eta Urritzaten beste etxe bat. Berena zuten etxea, baina hemendik tiratu behar zutelako, ez zuten hartzen ahal, eta gelditu ziren gabe. Arropak garbitu behar dira errekan. Juan Pedro Elorga da jabea. Baionan bizi da. Ez du pagatu nahi izan, eta nahi gintuen kanporatuta atera gu, baina ez zuen egiten ahal. Epaitegian izan zen, baina irabazi nion.



■ Dena den, Elizondora joanen zarete?

Hilabete guziz joaten naiz; gizon bat etortzen zait autoarekin bila. Jubilazionea ko-bratu eta mandatuak egiten ditut etxerako. Beharrik laborantzen jubilaioa dudala. Orain ez dute sosik ematen, azientak eta pentsua garesti dago. Baratzetan denetarik egiten dugu.

■ Ez al da gogorra hemen bizi-tzea?

Hemendik aitzina hasi naiz pentsatzen pixka bat gogorra izan behar duela. Gogorra etorriko zaidala ez naizelako ongi egonen. Ez dela nehor arropa garbitzeko, etxea garbitzeko ere ez. Lanean ikasi dut gizonak bezala, eta maite dut oraindik ere aritzea.

■ Beraz, pozik bizi zara Sumusun?

Bai. Beti mendia maite izan dut, ez dut sekula herria maite izan. Mendiko trankiltasuna. Hala ere, ez dugu postarik eta gure kartak Erratzun egoten dira denak. Hemen ez da zuzenbiderik. Frantzia ez dute etxe bat ere banatu gabe uzten.

■ Dena den, auzoa ez da lehenagokoa?

Ez. Aritzakunen asko jende bizi zen, 230 edo ezagutu ditut. Urritzaten izanen ziren 150 lagun, 22 baserri ziren eta Aritzakunen 26 ziren. Eta orain dena hustuta dago. Ematen dit pena izugarri. Eskola ere bazen Aritzakunen. 1952an sortua zen, eta 1974an edo itxi zen. Hogeia haur izan zen eskolan.

■ Zergatik alde egin du jendeak?

Elektrika duela bortsu urte ekarri zuten, eta bideak ere hamar urte besterik ez ditu. Beti oinez ibili gara eta astoarekin, ahal den bezala. Bizi egin behar zen, aitzak eta amak ezin zuten pagatu ahal dena, ez zen sosik eta

denak lekutu ziren: batzuzk Frantziara, besteak Espainiara eta besteak Ameriketara.

■ Orain zenbat baserri daude beteak?

Sei bakarrik. Eta Urritzaten ez da batean baizik bost lagun. Gobernuak emanen balitu laguntzak bizitzeko Eus-kal Herrian... Frantziara laguntza dute baserrietan bizitzeko eta tokiak eta gauzak ez hondatzeko. Ez dut ikusiko, baina

hamar urte buruan jende gutxi biziko da hemen, eta basurde eta sasia nagusituko da. Baleak ez du deus ere egiten. Iruñeko Gobernuak sosa ematen du, baina enpleatzen dute toki xabal horietan, ez mendian.

Etxe guztietan baziren zazpi-zortzi haur. Hemezortzi urte nituelarik norbaitek erran balit akabatuko zela ezetz erranen nion, baina akabatu da. Gogorra da jendea nola akabatu den, bi auzoetan, ezin sinetsi dut. Gai-neko bentan ume bat dute... esanez bukatu du. Kanpoan oilo errun berriaren kakaraka entzuten da. Ezpainetan irribarrea ageri duela agur esan digu oraindik sasoiak dagoen emakumeak. Begiak triste ditu, dena den. Urtero auzokideak izandakoak biltzen dituen festan alaituko ahal zaizkio.

→ Irene Arrizurieta
ARITZAKUN

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Florenzio Sanz Baeza eta Nafarroako Estatistika

Gaurkoan 111 urte betetzen dira Florenzio Sanz Baeza Iruñean zendu zela, izan ere, 1888.eko otsailaren 5ean zango-zaluiko herioak berekin eramane baitzuen; abondo lan idazien egilea, gurean bereziki ezaguna agitu zen Nafarroako estatistikaz 1858.ean argitara eman zuen liburuarengatik



LORENZIO SANZ BAEZAZ EZER gutxi da Perez Goienak behiala ekarri zigunari gerok gehi diezaiokeguna. Iruñean 1801.ean sorturik, nafar Al- dundiko idazkaritzaren 3. ofi- ziala bazen 1820.era, 13 ur- tetan gaindi, erregeordearen idazkaritzaren lehenengo ofi- ziala izatera iritsi zela, nahiz Aldundiari temaki eskatu fran- tses itzultzaile plaza bereganatu ezinik ibili. Administrazioan gorago egin zuen oraino, eta Erregearen idazkari agertu zi- gun bere burua argitara eman zituen liburuetan guztietan.

Ez ziren gutxi, bestalde, moldeetatik elkaraz zituen la- nak. Ondu zituen idazki ugari sistema metriko hamartarra- ren ezartzeak sortarazi zituen arazo guzietan aurre egiteko as- moarekin atera zituen, esate baterako, *Sistema métrico deci- mal puesto en preguntas y res- puestas para uso de las escue- las*. Gai juridikoez ere beste horrenbeste largatu zigun, ba- karra aipatzearen, *Opúsculo sobre desamortización de los te- rrenos comunales en Navarra* - Madril, 1861-. Arras bitxia ere Saletako Ama Birginaren ingu- ruan 1863.az geroz argitara eman zituen paperak.

Edozein modutan ere, Sanz Baeza ezaguna gertatu bazen, ez zen izan Itxaro Bordari *Basilika* liburuaren argumentoa asmatzeko ba- lioko zitzaiokeelako, ezpada, 1858.ean Iruñeko Frantzisko Erasunen etxetik atera zuen li- buruarengatik, hau da, *Estadística de Navarra*. Bertan Na- farroako estatistika egitearen beharra aldarrikatzen zuen, baita egin ere: topografia, biz- tanleria, ibaiak, mendiak, bi- deak, ehiza, arrantza, meatza- ritza, industria, banaketa ad- ministratiboa, laborantza, ba- soak, eta abar izkiriagai izan zituen. Alabaina, berri eli ho- netaz gain, aski argi utzi zigun bero-bero eginda azkon zorro- tzak jaurtikitzen bazekiela, eta

arrazoi ezezagun batengatik bere haserren itur bilakatuak ziren Iruñerriko biztanleak izan ziren liburu honetan ge- zirik mindarrienak pairatu zituz- tenak: *«Son generalmente ha- blando egoístas y envidiosos hasta del bien estar de sus pa- rientes. Desconocen lo que es caridad y buena fe, jamás dicen la verdad cuando conocen que el decirles les ha de causar la pérdida de medio real o frus- trarles la ocasión de recibirlo, trabajan pero de mala gana, enemistados casi siempre entre si los de cada población, se unen todos cuando se trata del interés de algún forastero, ape- nas hay personas, que tratán- dolos de cerca o que tenga asuntos con ellos que no les mi- re con desconfianza y antipatía. Su conducta, sus sentimientos, sus inclinaciones, les han crea- do en la provincia una reputa- ción nada favorable, y apodos y comparaciones muy propias de su comportamiento»*.

Liburu honek sortarazi zuen erantzuna hirukoitza izan zen, edo bederen, hiru izan ziren Sanzi neurrizko ihardespene eman nahi izan zituen idazleak. Frantzisko Matias Lakabe Mez-



kiritzek *Defensa de los aldea- nos de la Cuenca de Pamplona* ondu zuen, Jose Maria Iriba- rrenek bere *Batiburrillon «libre- jo farragoso e indigesto»* bezala definitu zuena. Lakabe Urro- tzen sortu zen 1815.ean, beraz Iruñerri hurbilean, eta nahiz Zangozako mediku luzaroan ihardun -hantxe zendu zen 1891.ean-, aurretik ere Iruñe- rri erdi-erdian dagoen Zizurko zendearen arizan zen.

Erantzun sendoago eta te- matiago, luzaerari errepara- tzen badiogu behinik-behin, Tuterako semea zen Luis Maya

Lizaso idazle eta kazetariak eman zuena. *Ojeada al folleto que con el título de Estadística de Navarra ha publicado F. Sanz Baeza, Iruñeko Bermeo etxean. Luis Maya El eco de Na- varra egunkari liberalaren idazlaria genuen, eta Sanz Ba- ezak ukitu beste gaiez ere zen- bait liburu argitara eman zi- tuen, kasurako, Navarra y la ley de desamortización* -Madril, 1859- edota nafar Gobernuak eskoletarako onartu *Elementos de aritmética y del sistema mé- trico decimal* -Iruñea, 1852-. Beraz, etsaiak betiere zelatan daude eta, estatistikazko libu- rua agertu orduko hortxe izan zen Maya tuterarra erasoan. Lakaberi ez bezala, Mayari bai erantzun ziola Sanz Baezak, lasterraren laster gainera, *A los señores lectores de la estadísti- ca de Navarra y a los de la Oje- ada* paperaren bitartez hain zuzen. Estilo baldarreko hitz purrustada dugu, zatarra eta gora handiko tonuan egina. Mayak, naski, ezin gauzak zeu- denean utzi, eta hika-mika eli- katu zuen *Pasovalente agri- dulce final* laburrekin. Azken hitza, edozein modutan ere, Sanzena behar, eta *A los seño- res lectores de las estadística de Navarra* plazaratu zuen.

Sanzen lanari eragozpenak ezarri zizkion hirugarrena, nongotarra eta tuterarra ere bagenuen, Jose Yanguas Mi- randa historialari xaloe hots. Honek *Breves observaciones a la Estadística de Navarra* ondu zuen. Samurrago izan bazen ere, Sanzek ez zituen honen- gandik ere kritikarik onartu, eta *Adición a la estadística de Navarra, o sea, respuesta a las observaciones de Jose Yanguas Miranda* atera zuen. Yangua- sek, ordeá, ez zuen berriz ere erantzuteko arduradik hartu, jakin baitzekien, inora erama- ten ez zuen eztabaida antzua zela Sanzek nahi zuena, iruñe- rren protagonismoaren me- sederako betiere.

etorri ahalean

Patzi ku Perurena



Puskalehor eta eltzariaz

AURREKO BATEAN, Auspoaren sail tti- ki xarmagarri ho- rretan, Oiatzungo Bost Bertsolari izenekoa leitzen ari naizela, aspaldi haundian aditu gabea neukan hitz baten inguruko oroipenak berri- tu zaizkit, behialako sorgin xaha- rren baten arimak bihotza kiri- molatu balit bezala edo...

Hala hasten da Eperra izene- ko koplari zahar zelebre baten bertsoa, hemeretzigarren orri akaberan:

*Ikazkille gaxuak
dijuz basora
anua bizkarrian,
eskuan aizkora...*

Eta, bertsoaren ondotik, ho- nako azalpen hau ematen du Antonio Zavalak: *«Anua, zako- tea omen da»*.

Berriz atzera, 84 orrian, Por- tuburuko Inazio Irazuk hala kontatzen du, Goiara delako mutila Krixoxtomorentzat baso- lanetan nola aritzen zen: *«Goiara orrek askotan emen jaten zun. Oik, beren zakotea esaten diogu guk; beren puskak artzen zituz- ten [jateko]»*.

Horra bihotzean ukitu nauen hitza. Guk «zekotea» erabiltzen genuen Goizuetan. Zenbat aldiz ez nago aditua, honako honela- ko esaldiak: *«Eun guziko mendi- ra yona da, zekotea artuta»*, edo *«zekotea itxen aztuta yon da atzenen, gure motilla lanera»*, edo *«zerkin prestatzea nai duk biarko zekotea?»*, edo gisako beste mila modutan. Zenbat oroipen xoragarri hitz sorgin ho- rren ingurukoak, beti ere giza- semeen etxetik kanpoko zeregi- nei lotuak. Arrotz eta guzi egiten baitzait emakumea, zakotea biz- karrean duela inorako abieran.

Biderako edo aldi baterako (egun osorako, edo luzenaz ere, aste baterako) etxetik norabait joatekoan hartzen den jatekoa (normalean puskalehorra) da «zekotea» goizuetarrentzat, eta Leitza eta bestetan «anoa» esa- ten zaionak baino askoz seman- tika estuagoa du. Latineko «an- nona» delatik datorrena baita

gure «anoa», sorreran, urteko gari edo labore uzta baizik adie- razten ez zuena.

Eta «zekote» hitza berriz, lati- neko *saccus* hitzetik sortutako *zakuto* hitzetik dator. Erruz era- bili izan baita *zakuto* hitza, gure herriska puskabiltzaile eta es- kazale poliglota hauetan, eta ez da batere harritzeko, atzenera- ko gure hitza hartaraino bihu- rritu izana. Testu zaharretan ere, maiz ageri da, erdararen tarteko; Izuko erretoare Joan Martin Iberok 1766an egindako testamentuan, enkantera sal- dutako gauzen zerrendan, esate bateko: *«dos zacutos de traer pan de Iglesia»*. Halamoduzko jende zarpail, lapur, antzakai- tzen izengoitik gisa ere usu erabi- litakoa da «Zakuto» euskaraz.

Gizamodu berrietan gailen- tzen ari diren jateko ohiturei be- giratuta, gezurra badirudi ere, puskalehorra da beste hitza as- paldian aditu ez dudana. Zen- bat aldiz etxean aitak: *«ederki nazkatua izaten nuk ni puskale- orretik»*, «beti puskaleorren ibil- tzen giñuzen ta, beti gaizki esta- mokotik». Baina zer ote dugu xu- xen, puskalehor hori? Honatx zeinen ederki azaltzen duen *Errotaria* poemaren pasarte ba- tean Orixe:

*Aren betiko jana
puska legorra da;
eltzerik egosteko
mutil au nor ez da.*

Ez dira ordeá, gauza bera, be- larri eta sen euskaldun baten- tzako, horko *puska lehorra*, izen adjetibo mugatu singularrak, eta nik etxean beti aditu izan dudana *puskaleor* delako izenor- de jenerikoa. Eltzekoa izan da guretzat, puskalehor delakoa- ren kontrakoa: gure aitaren guztizko eltzaria, alegia.

Eta jakikontu zaharrok hola, sutondoko patxadan gozaro egositako eltzetik urrun, han eta hemen pikoka puskalehorra janez presak idortua bizi den modernajea datorkit gogora, zentzu alegorikoki osoenean *«bere eltzarik egosteko nor ez iza- teraino»* ezeztatua.

Ziria

• Motxorrosolo •


Estrategiak

GARAIAN ZEIN BEHEREAN ZENBAIT DISKURTU SORREN SATANIZATZEA bizi izan dugu. Bi kasuetan galdeak zein erantzunak politika eremu beretik etorriak izan dira. Alta, arras ezberdina dugu gizartean mamitzen ari de- na. Batean antzinako mamuak berpizteko balio dezake, bestean mamua aipatze hutsa pettoaren marka dugu. Noiztik Nafarroatik hausnarturiko estrategia? Bat baino gehiago, Iruñekora, gogoz kontra joan da.

Roldan Jimeno Historialaria

«Jendeak ez du ezagutzen historia»

Iruñeko historia izeneko liburuxka kaleratu du Roldan Jimeno historialariak, Maria Dolores Martinez Nafarroako Unibertsitateko irakaslearekin batera. Txertoak argitaratuta, dibulgazioko lana dela garbi utzi du Jimenok, jendeak bere historia hobeto ezagut dezan egina alegia.



• MIKEL SAIZ

■ **Dibulgazioko lana da Txertoak** abiatu duen bilduma berri hau. Zuek aurretik egindako lan batzuen bilduma da, idatzita dagoenetik hartutakoa. Ikerketa lana badago?

Bi arlo daude lan honetan. Alde batetik, Antzinako Aroa eta Erdi Aroa, nik egin dudana, eta, bestetik, Aro Modernoa eta Garaikidea, Maria Dolores Martinez Arcekin egin duena. Txertoa-koek premia handia zuten lan hau kalera-tzeko, eta nik emanda neukan ez ikastaroa Euskal Herriko hiriburuei buruzkoa, euskaraz eta unibertsitatean, material hori, Iruñeari buruzkoa, prestatu nola bait.

Gero, hemengo kapituluaren batek nire tesiarekin zerikusirik duenez, ba, lan erdia egina zegoen.

■ **Lana ez da garaiei dago-kienez era linealean antolatua, hau da, arloak hartu dituzue -historia, erakundeak, erlijioa, gizartea, hizkuntza...- eta horiek landu egin dituzue gero, banan-banan. Zergatik?**

Badaude Iruñeko hainbat historia, besteak beste gure aitak eginikoa, eta, gauza bera ez egitearren, iruditu zitzaigun gaitz sailkatzea ideia ona izango zela, horrek erakargarriago egingo zuelako lana jende gehienentzat.

■ **Iruñea Pompeiok egituratu**

zuen, eta garai luze batez oso harreman estua izan zuten baskoiek eta erromatarrek. Hori, gutxi gorabehera, historiarekiko zaletasun apur bat duten guztiek dakite. Hala ere, ez dago oso garbi, ezezagutza handia dago garai honi dagokionez.

Baskoien eta erromatarren artean nahiko harreman ona izan zen, hori garbi dago. Erromatarrek etorri zirenean, bazegoen hiri bat baskoien hiririk garrantzitsuena zena, eta haiek ikusi zuten toki aparta zela eta han eratu zuten hiri berria, hiri erabat erromatarra gainera: bere foru, lurrekin eta abar. Erromatarrekin harreman ona lortu zuten haiek nahi zutelako bidesareak kontrolatu. Kokagunea izan da Iruñearen ezaugarriarik garrantzitsua: penintsulan sartzeko Pirinioetako atea izan da beti»

rrekin eta abar. Erromatarrekin harreman ona lortu zuten haiek nahi zutelako bidesareak kontrolatu. Kokagunea izan da Iruñearen ezaugarriarik garrantzitsua: penintsulan sartzeko Pirinioetako atea izan da beti. Erromatarrek iritsi aurreko baskoien antolamendua erabat ezagutzen ez bada ere, esan daiteke garai hartan bazegoela herrialde nagusi bat, eta inguruan beste batzuk txikiagoak, sare moduan. Badakigu Iruñea zela herrialde nagusia, baina askoz gehiago ez zaigu iritsi, erromatarrekin eta mendeetan zehar izan diren suntsipenekin ezinezkoa delako ezer jakitea.

■ **Onerako edo txarrerako izan da kokagune estrategikoa edukitzea?**

Dudarik gabe, konkistaren ikuspuntutik txarrerako izan da, baina, bestaldetik, Iruñea inguru honetan egon ez balitz, herrixka izango zen, ez zuen garapenik izango. Bidesariarenaz gain, ekonomiaren kontrola ere nahi zuten erromatarrek, eta horregatik gelditu ziren batez ere Ebro aldean.

■ **Historiak dio erromatarrek beti izan direla aitzinamendua ekarri dutenak eta gainontzekoak -zeltiarrek, sueboak, godoak, frankoak...- suntsitzaila hutsak.**

Erromatarrek ekarri zituzten gauzarik txarrena latina izan zen, horrekin hasi zelako euskararen galtzearen lehen urratsa. Baina ekarri zuten beste guztia nahiko ona izan zen. Erromatarrek hona etorri baino lehenago, baskoiek famatuak ziren oso zaldun trebeak zirelako, gerlari onak, eta Italiako hiri batean azaldu ziren gerran parte hartutako baskoi batzuen izenak. Ezagunak ziren ordurako.

■ **Besteek zer ekarri zuten?**

Igaro ziren lehen germaniarrek suntsidura bakarrik ekarri zuten. Bisigodoak gehiago finkatu ziren, ez Iruñean, baina Toledon, eta handik beti ahalegindu ziren baskoia kontrolatzen, haiek beti liskarretan ari zirelako. Garai ho-

Roldan Jimenok 25 urte ditu, eta 1996an amaitu zituen Historia ikasketak, Nafarroako Unibertsitatean. Hau ez du lehen argitalpena, Erdi Aroko euskal iturri buruzko bilduman ale bat kaleratu baitu berriki. Baita Tiebas herriari buruzko lantxoak ere.

Egun Nafarroako Erdi Aroko erlijioasuna aztertzen ari da, Hezkuntza Ministerioak emandako beka bati esker, eta, bereziki, Vatikanoko artxiboan ari da maitzen bertako datuen bila. Hara itzuliko da maiatzean; uztailan Ingalaterrara joango da eta azaroan eta abenduan Parisera, duela bi urte eta erdi hasitako tesiari azken ukituak emateko asmoz. Lana urte eta erdiren buruan amaitzea espero du, 2000. urtean irakurri nahi duelako.

Historialaria izateaz gain, Tiebasko kontzejuko alkatea ere bada Roldan Jimeno. Duela hiru urte eta erdi hartu zuen erabakia, herriko zenbait gaztek herriaren alde zerbait egin nahi zutela eta ados jarri ondoren. Zerrenda irekien sistemaren arabera aukeratu zuten Roldan, eta kultura suspertzea izan du helburu nagusia. Hurrengoetan ez dela aurkeztuko garbi utzi du, hala ere.

rretan joan zen lehen aldiz Iruñeko apezpikua Toledon egin zen kongresu batera, eta horrek erakusten du hiriak bazuela garrantzia. Arabiarrekin, une jakin batzuetan izan ezik, Iruñea ez zen haien esku izan. Bai, ordea, Erribera. Hor hasi zen Iruñearen independentziarako urratsa, eta X. mendean amaitu, Iruñeko erresumaren sortu zenean, Antso I.a Gartzearrekin.

■ **Erlijioa da zure espezialitatea. Nolako izan zen Iruñea kristautzeko prozesua?**

Erromatarren erresuma osoan berdina izan zen kristautze bidea. Erlijioa, lehen-dabizi, hirietan sartu zen, eta gero nekazari guneetara ba-

rreiatu. Ez dakigu zehazki noiz hasi zen Iruñean kristautzea, ia iturriarik ez dagoelako, baina badakigu zehatz-mehatz VI. mendean bukaeran elizbarrutia guztiz eratutik zegoela. Esan daiteke, beraz, V. mendean izango zela Iruñeko kristautzea.

■ **Uste duzu hemengo jendeak ezagutzen duela Iruñeko historia?**

Nik esango nuke ezetz. Badira topiko batzuk, urteetan errepikatzearen poderioz egia bilakatu direnak, adibidez San Ferminen historia. San Fermin apokrifoa da, ez zen existitu, baina, hala ere, jendeak sinetsi egiten du.

→ Alberto Barandiaran

Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1999ko Otsailaren 5a

ZALDIEROA.komikizopa



Nafar Kronika

Pello Goñi

Fikzioak

FRANCISCO RABALEK FLAMENKOA dantzatzen ikasi behar izan omen zuen atzerrian espainarra zela sinistarazteko. Ezin baitzuten imajinatu flamenkoa dantzatzen ez zekien espainiarrik. Salma Hayek aktore mexikarrak duela bost urte ez zekien ingelesez. Los Angelesera lan bila joan eta orain Hollywoodeko izar bihurtu da. Duela gutxi irakurri nuen badagoela latinzaileen talde bat hitz modernoak hizkuntza zahar eta eder horretara bihurtzen ari dena eta latinez mintzatzeko topaguneak antolatzen dituen. Arabiarrek, tokian tokiko arabieraz landara, badute arabiera klasikoa herri desberdinetako arabiarrek elkarren artean uler dezaten. Judutarrak, berriz, munduan zehar barreiatuak ibili dira hainbat mendez, haiekin hebraiera eramanik, nahiz eta bizirik irauteko beste hizkuntzak ikasi behar izan dituzten. Espainian ere badira kontraesan nabariak. Zenbat hitz erabiltzen ditu gaur egun batez beste espainiar gazte batek? eta erabiltzen dituen hitz horietatik zenbat dira ingelesetik hartuak? Fikzioak al dira arestian azaldutako egoerak? Baliteke. Nafarroa honetan euskarari eusteagatik fikzioan bizitzea leporatzen zaigunok -batzuk, bederen, generalizatzea gero eta gutxiago gustatzen baitzait- fikzio horretan segitu nahi dugu, ez inor izorratzeagatik, baizik eta geure fikzioan gusturago bizi garelako. Nik ez dut deus beren arrazoia denok adoratu behar dugun jainko bihurtu nahi dutenen aurka. Baina jakin bezate gure bihotzean badirela arrazoiak arrazoiak berak ulertzen ez dituenak.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► Irúña:

Flamenko emanaldia izanen da datorren ostegunean Gaiarre antzokian. Esperanza Fernandez kantari ariko da eta Salvador Gutierrez gitarra jotzen. Emanaldia 20:00etan izanen da.

► Altsas:

Artsaia Mama Ladilla taldeak kontzertua eskainiko du bihar 24:00etan.

ERAKUSKETAK

► Altsasu:

Plazaolako Partzuergo Turistikoaren Gure herria, gure kirola herri kirolaren inguruko erakusketa ibiltaria Gure Etxea kultur etxean dago ikusgai otsailaren 28a arte. Astelehenetik larunbatera 19:30etatik 21:30ak arte ikus daiteke, eta igandeetan, berriz, 12:30etatik 14:30ak arte.

► Aiarra:

Jubilatuaren Elkartean Txotxongintza: artelana erakusketa ikusteko aukera dago hilaren 14a arte. Erakusketan Corrado Masacci italiarrak bildutako txotxongiloak eta hainbat herrialdeetako kareak bildu ditu: Bali, Nepal eta Birmanikoak, kasu.

► Tafalla:

Lagar erakusketa aretoan Iberdrolak eta Kultur Etxeak antolatutako Fosilak eta mineralak erakusketa ikus daiteke hilaren 24a arte.

ZINEMA

► Irúña:

Karrikiri Elkartek antolatuta, zinema euskaraz Golem zinematokian. Gaur Errebelde baten egunkaria pelikula eskainiko dute 20:00etan. Aurretik 4. galeriatik film laburra eskainiko da.

BERTSOLARIAK

► Ituren:

Inauteri festen amaieran bertso bazkaria izanen da bihar, eta arratsaldean ere izanen da saiorik. Amuriza eta Peñaigarikano ariko dira.

► Arantz:

Goiz eta arratsaldean, inauteri festa dela eta, bertsoan ariko dira etzi J. Soroazabal eta Iñaki Murua.

► Arano:

Bertso afaria egingen dute etzi

inauteri festak ospatzeko. Bertso kantari ariko dira J. Soroazabal eta M. Lujanbio.

BESTELAKOAK

► Irúña:

Miluze euskaltegiak euskara ikasteko ikastaroak antolatu ditu otsailtik ekainera bitartean. Matrikula epea astelehenean zabalduko da eta hilaren 11 arte iraunen du. Informazio gehiago: 948-177670/54 telefonoetara.

► Elizondo:

Goma-aparrezko moztzori tailerra antolatu du Gazte Asanbladak. Tailerra bihar hasiko da, Baztandarren Biltzarren egoitzan, arratsaldeko 15:30etan. Ikasi nahi duena ager dadila.

► Irúña:

Ana Mugarrak *Viaje a lomos de una bicicleta por Africa del Oeste* diapositibaren emanaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, Nafarroako Kirol Elkartean.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—Decías que eras probe e tiñas unha vaca, ¿eh?

Pobre hintzela eta behi baten jabe haiz, he?